Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana, 2018-2022 40. jarduna

2.7.2 KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA LAGUNTZEKO ZERBITZUAK SARTZEARI LOTURIKO AZTERLANAK ETA INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Zuzeneko lan-diskriminazioa. ▪ Erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan. ▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea.
Helburu zehatzak	▪ Bizitza pertsonala, lana eta familia hobeto uztartzen laguntzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzeko planen eta proiektuen garapena bultzatzea: ▪ Kontziliazio erantzukiderako neurrien inguruan sentsibilizatzeko eta horiek onurak partekatzeko modu gisa sustatzeko jarduerak. ▪ Bateratu+ web orria jakitera ematea, kontziliazio arloko benetako laguntza eta aholkularitza jasotzeko tresna gisa konfiguraturaz.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Confebask
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	Web orria mantentzea: 2019: 23.500 euro / 2020: 23.500 euro Sustapen- eta sentsibilizazio-neurri osagarriak: 2019-2020ko Txoke-plana: 75.000 euro urteko.
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2018-2022
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa. ▪ Zaintza-lanetako arrakala.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Enpresetan berdintasunerako planak ezartzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak garatzen dituen laguntza-lerroekin koordinatu beharko da jarduketara hori.

2.7.3 LAGUNTZAK, DENBORAREN ANTOLAMENDU SOZIALA EGOKIAGOA ETA ARDURATSUAGOA IZAN DADIN SUSTATZEKO

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Zuzeneko lan-diskriminazioa. ▪ Erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan. ▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea. ▪ Haurraz erditu ez den gurasoa aldentzea
Helburu zehatzak	▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea saihestea. ▪ Zaintza-lanak hautatu izanaren ondoriozko lan-diskriminazio zuzena desagerraraztea. ▪ Guraso biengan, umez erditu den gurasoan eta bestean ere, atxikimendua eta erresilientzia lortzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Zaintzen erantzunkidetasunaren alorrean, batez ere, aurrera egin behar dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun parametroetan. Gero eta gizon gehiagok eskuratu behar dituzte senideak eta bere kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentziarako laguntzak. Hain zuzen ere, programaren helburuetako bat izango da apurka-apurka gero eta gizon gehiago izatea zaintzen erantzunkidetasunaz arduratzen direnentzako laguntzen onuradunak eta horrela galaraztea neurri horiek emakumeak lan merkatutik irteten laguntzea. Horretarako, birbideratu egingo da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua, haxe erdiesteko: ▪ Apurka-apurka gehitzea senideak eta bere kasa moldatzen ez diren pertsonak zaintzeko eszedentzia eskuratzen duten gizonen kopurua, diskriminazio positiborako neurrien bitartez. ▪ Laguntza ekonomikoen zenbatekoak pixkanaka-pixkanaka igotzea, hiru urtetik beherako seme edo alaba bakoitza zaintzeko eszedentziak estaltzeko, kontziliazio behar bereziak dituzten familietan: guraso bakarreko familiak, familia ugariak, mendekotasun-egoeran dagoen edo desgaitasuna duen kide bat duten familiak, genero-indarkeriaren biktima izan den kide bat duten familiak. ▪ Lanaldia murrizketagatik ematen diren laguntza ekonomikoen zenbatekoak pixkanaka-pixkanaka igotzea, premia bereziak dituzten familien kasuetan: guraso bakarreko familiak, familia ugariak, mendekotasun-egoeran dagoen, desgaitasuna duen edo genero-indarkeriaren biktima izan den kide bat duten familiak.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	

2.7.3 LAGUNTZAK, DENBORAREN ANTOLAMENDU SOZIALA EGOKIAGOA ETA ARDURATSUAGOA IZAN DADIN SUSTATZEKO (jarraipena)

Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	Gaur egungo laguntzak lan-eszedentzian dauden langileei zuzentzea, eszedentzietan babes ekonomikoa hobetzeko = 54.000.000 € (2019 = 27.000.000 €; 2020 = 27.000.000 €)
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	Gaur egungo laguntzak seme-alaba zaintzearen lan-eszedentzian dauden edo lanaldi murriztua duten langileei zuzentzea, premia bereziak dituzten familien kasuetan = 2019-2022
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Bideratutako espedienteen kopurua. ▪ Urtean ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa, guztira.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana, 2018-2022 17. jarduketa / 18. jarduketa / 19. jarduketa

2.7.4 GIZARTE ETA KOMUNITATE MAILAKO ARRETA-ZERBITZUEN ESTALDURA ETA ORDUTEGI-MALGUTASUNA HANDITZEA TOKI MAILAN

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Zuzeneko lan-diskriminazioa. ▪ Erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan. ▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea.
Helburu zehatzak	▪ Norberaren bizitza, lana eta familiaren kontziliazio hobia ahalbidetzea, haurrak, adinekoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko gizarte eta komunitate zerbitzuetan ordutegi zabalagoak eta malguagoak ezarri. ▪ Ordutegien inguruko kultura berriaren ezarpena toki mailatik bultzatzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Hiru proiektu pilotu –lurralde bakoitzeko bat– diseinatu eta garatzea, ordutegiei eta denbora erabiltzeko moduari dagokienez, kultura berri bat toki mailan aztertu eta garatzeko.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Foru Aldundiak Udalak Emakunde
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2020: 35.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2020. urtea
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa. ▪ Programa pilotua hiru udalerriean garatzea.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana, 2018-2022 Jarduera: 98. (Ordutegien inguruko kultura berriaren ezarpena toki mailatik bultzatzea)

2.7.5 PROGRAMAK, GIZONAK ADINGABEEN ZAINKETAN GEHIAGO INPLIKATU DAITEZEN LORTZEKO

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Zuzeneko lan-diskriminazioa. ▪ Erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan. ▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea. ▪ Haurraz erditu ez den gurasoa aldentzea.
Helburu zehatzak	▪ Guraso biek gurasotasun positibori buruz daukaten prestakuntza maila igotzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Gurasotasun positiborako programak indartu eta hedatzea, honako hauen bidez: ▪ Guraso elkarteekin sarean lan egitea bultzatzea, gurasotasun positiboko jarduerak garatzeko. ▪ Haurtzaroaren esparruan lanean diharduten profesionalen gurasotasun positiboari buruzko prestakuntza bultzatzea. ▪ Profesionalekin topaketak bultzatzea, haien egoera aztertzeke eta behar horiei nola heldu pentsatzeko. ▪ Enpresa-eremuan gurasotasun positiboaz sentsibilizatzea.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Guraso Elkarteak Confebask Euskal Herriko Unibertsitatea
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019: 50.000 euro (Konpromisoazko kreditua); 2020: 50.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019-2022
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa. ▪ Egindako prestakuntza-ekintzen kopurua. ▪ Egindako saioen kopurua. ▪ Sentsibilizazio-kanpainen kopurua.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana, 2018-2022. 28. jarduna

2.7.6 MENDEKOAK ETA ADINEKOAK ARTATZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA, SEKTOREAN LAN EGITEN DUTENEN LAN-BALDINTZAK BEREZIKI ZAINDUZ

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Emakumeen lana gutxiestea (zaintza-lanak). - Ohiturak eta genero-rolak. - Lana eta familia uztartzea.
Helburu zehatzak	Baliabideak optimizatzea, arlo horretan esperientzia duten pertsonen gaitasunak, produktibitatea eta profesionalizazioa hobeto aprobetxatzeko eta areagotzeko ; halaber, lan-baldintza egokiak bermatzea, laneko bajak, langileen txandaketa eta langile gaituak galtzea saihesteko.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Gizarte-zerbitzuen sektoreko jarduera profesionalak normalizatzen, formalizatzen, arautzen, prestatzen eta hobetzen aurrera egitea lagungarria izango da, zalantzarik gabe, gizarte-alorreko esku-hartzea jasotzen duten pertsonen bizikaltatea hobetzeko, baina baita jarduera-sektore horretako lan-baldintzak pixkanaka hobetzeko ere, eta nagusiki emakumeak aritzen direnez lan horretan, beharrezkoa da emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politikak proaktiboki aplikatzea ere. Emakumeek sektoreari egin dioten ekarpena ikusarazi eta aitortu behar da, bai eta emakume immigranteen presentzia handia ere. - Telelaguntza Zerbitzuko kontratuetan, zerbitzua kontratatzean genero-ikuspegia txertatzea. APP berria ere lagungarria izango da.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Emakunde Mendeko pertsonak, hain zuzen Telelaguntza-zerbitzuko langileak Zerbitzua emateko kontratatutako enpresa
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	20 milioi euroko funtsa 2018an; Eusko Jaurlaritzak horietako 14.007.000 euro jartzen du. Funtsa urtebetez mantentzen da, ohiko izaeraz.
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019-2020
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	APP tresna berria ebaluatzea
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa. Finantza-lankidetzarako formula , (“funtsa”) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa hedatzeko, egonkortu gabekotzat jotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak garatze aldera, foru-eskumenekoak nahiz udal-eskumenekoak izan.

2.7.7 LAGUNTZAK, MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDENAK EDO ADINGABEAK ZAINTEKO LANALDI MURRIZTUA EDO ESZEDENTZIA DUTEN LANGILEAK ORDEZTEKO

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Emakumeak lan-merkatutik ateratzea. - Erantzunkidetasunik eza zaintza-lanetan.
Helburu zehatzak	Adingabeak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak ahalbidetzea, emakumeek lan-merkatua uztea saihesteko.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera larrian dauden seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi murriztua duten langileak ordeztzeko laguntza-lerroa enpresentzat. Diruz lagunduko da langabe gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea, honako hauek ordezkatzeko: zaintza beharra dela eta, lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu duten besteren konturako langileak, kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak. Era berean, diruz lagunduko da alde aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldiaren luzapena, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa duen beste langile baten lanpostua betetzeko egin baldin bada
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Lanbide: Enplegu eta Gazteria Sailburuordea Marcos Muro Nájera
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019: 1.700.000 euro / 2020: 1.700.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019. urtea (eskaerak aurkezteko epea urte osoan irekita) 2020. urtea (eskaerak aurkezteko epea urte osoan irekita)
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	Emandako diru-laguntzen kopurua
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	7. ekintza (eszedentzia edo lanaldi murriztua duten pertsonak ordezkatzeko laguntza ekonomikoak) Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planean (2018-2022) jasota egon arren, Lanbideren mende dagoen lerroa da.

2.7.8 LAGUNTZAK, GURASOTASUN-BALDINTZAK EREMU PRIBATUAN PAREKATZEKO

Kokapena estrategian	2A. DESBERDINTASUNA MURRIZTEA LANALDIARI DAGOKIONEZ J2.7 Kontziliazio erantzukidea errazten duten pizgarri ekonomikoak eta zerbitzuak gehitzea, emakumeak lan-merkatutik atera ez daitezen eta haien jarduera-tasa hobetu dadin.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Zuzeneko lan-diskriminazioa. ▪ Erantzunkidetasunik eza zainketa-lanetan. ▪ Emakumeek lan-merkatua uztea. ▪ Haurraz erditu ez den gurasoa aldentzea.
Helburu zehatzak	▪ Emakumeak lan-merkatutik ateratzea saihestea ▪ Amatasuna hautatu izanaren ondoriozko lan-diskriminazio zuzena desagerraraztea. ▪ Guraso biek –umez erditu denak eta besteak– seme edo alaba jaio eta lehenengo hilabeteetan berdintasunez eta erantzukidetasunez zaintzeko aukera ematea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Aitatasun-eszedentzien babes ekonomikoa bermatzea gehienez ere 16 aste kotizazio-oinarriaren %100a ordainduz: konpentsazio ekonomikoa, seme edo alaba jaiotzeagatiko baimena parekatzeko (baimena norberarena eta gurasoen artean besterenezina da), familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatuz, pixkanaka-pixkanaka prestazio ekonomiko bat sartzeko, haurra erditu ez duten gurasoentzako eszedentziak estaltzeko, gehienez ere 16 aste, jaiotzaren ondoko hamabi hilabeteen barruan eta amatasun-baimena hartzen ez duen aldi batean, kotizazio-oinarriaren % 100aren pareko zenbateko batez. Neurri hori apurka-apurka aplikatzeak hori zabaltzea dakar: ▪ Bigarren eta hurrengo haurraren kasuan, aplikazioaren lehen fasean bakarrik. ▪ Lehenengo semea edo alabaren kasuan, aplikazioaren bigarren fasean zehar.
Arduraduna	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Arduradun nagusia: Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. Beatriz Artolazabal Albeniz. Arduradun zuzena: Gizarte Politiketako sailburuordea. Lide Amilibia Bergaretxe.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	Gaur egungo laguntzak lan-eszedentzian dauden langileei zuzentzea, babes ekonomikoa bermatzeko = 39.120.000 € (2019 = 19.560.000 €; 2020 = 19.560.000 €).
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019tik aurrera
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Laguntza-espedienteak, umez erditu ez den gurasoaren eszedentziak babesteko

3.A

3. Ardatzeko neurriak – Hezkuntza eta gizarte-sentsibilizazioa

3.1.1 Deialdiak funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxeetan hezkidetza-proiektuak diseinatzeko

3.1.2 Hezkidetzako Plan Gidaria

3.1.3 Irakasleen konpetentzia-profilen prestakuntza etengabea, hezkidetza-ereduen arabera

3.1.4 Emakumeengan bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzen laguntzeko materiala landu lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan

3.2.1 Emakundek egindako soldata-arrakalari buruzko txostena eguneratzea

3.2.2 Ikerketa sektorialak egitea, soldata-arrakalan eragiten duten faktoreei buruz

3.2.3 Diagnostikoa: soldata-arrakala Eusko Jaurlaritzan

3.2.4 Azterlana: soldata-arrakala Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES)

3.2.5 Diagnostikoa: soldata-arrakala EAEko erakunde, organismo autonomo eta enpresa publiko nagusietan

3.2.6 Azterlan bat egitea, “lan bereko lana” kontzeptua mugatuko duena, ordainsari-berdintasunaren printzipioa bermatzeko

3.2.7 Plan bat diseinatzea, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategian genero-ikuspegia txertatzeko

3.3.1 Ebaluazioa, benetako inpaktua zehazteko, soldata-arrakalaren murrizketan gertatutako aurrerapenari dagokionez

3.4.1 Sentsibilizazio-kanpaina eta prestakuntza, kontziliazio erantzukideaz eta zaintza-lanen garrantziaz

3.4.2 Kanpaina instituzionala, gizarte soldata-arrakala desagerrarazteko/murrizteko erronkaren inguruan sentsibilizatzeko

3.4.3 Azterlana, oinarri komunak erabakitzeko, lansari-berdintasunari eta soldata-gardentasunari buruzko lege bat bultzatzeko

3.1.1 DEIALDIAK, FUNTS PUBLIKOEKIN SOSTENGATZEN DIREN IKASTETXEETAN HEZKIDETZA-PROIEKTUAK DISEINATZEKO

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.1 Haurtzarotik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Genero-desberdintasunean oinarritutako gizarteratzea: generoari loturiko ahalmenak, gaitasunak eta bizitza-proiektuak. - Emakumeen presentzia eskasa ekonomia, kultura eta zientziaren arloko erabaki guzietan. - Etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketan orekarik eza.
Helburu zehatzak	- Ikastetxeek genero-ikuspegia beren kulturaren, politiketan eta praktikan txertatzea bultzatzea, eskola-komunitateko hainbat eragileren laguntzarekin. - Koedukazioaren arloan, jarduketako proiektu bat diseinatuko duten ikastetxeak hautatzea; proiektuak gaiari modu orokorrean, sistematikoan eta integratuan heltzea ahalbidetuko die. - Zentroetako ordezkariak goreneko organoan zentroko Hezkidetza Proiektua onartzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Urteko deialdia onartzea. - Deialdian, datozen 3 urtetarako jarduketako proiektuak aurkeztu dituzten guztira 50 ikastetxe publiko hautatzea. - Berritzeguneek zonaka antolatutako mintegietan, prozesu osoan zehar, aholkularitza, prestakuntza ematea eta jarraipena egitea. - Deialdiaren jarraipena eta ebaluazioa egitea
Arduraduna	Hezkuntza Saila. Arduradun nagusia: Hezkuntzako sailburua. Cristina Uriarte Toledo. Arduradun zuzena: Hezkuntzako sailburuordea. Miren Maite Alonso Arana.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Funts publikoekin sustatutako ikastetxeak Berritzeguneak
Baliabide ekonomikoak (€) 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak	Prestakuntza-proiektuak aurkezteko deialdia urteko 60.000 € eta 1.540.000 € balio duen ordutegi-kreditua duten zentroetan. 2019: 1.600.000 euro / 2020: 1.600.000 euro (aurreikusitako zenbatekoa)
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	26 ikastetxe 2018-19 ikasturtean
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	2018-19, 2019-20 eta 2020-21 ikasturteetan koedukazioari heltzea ahalbidetzen den ekintza-planen kopurua. - Klaustroarekin, familiekin eta gizarte eta komunitate mailako eragileekin egindako prestakuntza-ekintzen kopurua.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	2018-19 ikasturtean parte hartuko duten zentroen kopurua, guztira: 54

3.1.2 HEZKIDETZA PLAN GIDARIA

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.1 Haurtzarotik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Genero-desberdintasunean oinarritutako gizarteratzea: generoari loturiko ahalmenak, gaitasunak eta bizitza-proiektuak. - Emakumeen presentzia eskasa ekonomia, kultura eta zientziaren arloko erabaki guneetan. - Exeko lanen eta zaintza-lanen banaketan orekarik eza.
Helburu zehatzak	- Hezkuntza-sistema egituraz eta pertsonaz hornitzea, hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredua modu koordinatuan sustatzeko. - Haur hezkuntzatik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea, pertsonen garapen osoa bultzatuz eta generoari loturiko estereotipoen ondoriozko mugak gaindituz.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Hezkidetzako II. Plana hedatzea. Euskal hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren prebentzioan eta berdintasunean hezte. - Planean jasotako jarraipen eta ebaluazio neurriak abian jartzea. - Planaren ezarpenarekin lotutako emaitzei buruzko txostena egin eta zabaltzea.
Arduraduna	Hezkuntza Saila. Arduradun nagusia: Hezkuntzako sailburua. Cristina Uriarte Toledo. Arduradun zuzena: Hezkuntzako sailburuordea. Miren Maite Alonso Arana.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Euskadiko Eskola Kontseilua Emakunde Gurasoen elkarteak eta federazioak.
Baliabide ekonomikoak (€) 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak	2019: 30.000 euro / 2020: 30.000 euro 2019-2020ko Txoke-plana: 50.000 euro urteko
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	- Plan berria aurkeztea eta ezartzea. 2018-19 ikasturtea - Batzorde teknikoak eta jarraipen-batzordeak jarraipena egitea. 2019-20 ikasturtea
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Ikastetxeetan koedukaziorako arduradun izendatutako irakasleen kopurua, eta ordezkari gorenko organoetan berdintasunerako ordezkarien kopurua. - Hezkuntza komunitate osoan sortutako koordinazio- eta partaidetza- egituren kopurua. - Hezkidetzaren arloan, irakasleei zuzendutako zonako mintegien kopurua. - Bigarren hezkuntzako zentroetan, bazterketa-arriskuan dauden eta eskola utzi duten nesken kopurua.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Esparrua: unibertsitatea ez diren ikastetxeak, funts publikoekin mantentzen direnak.

3.1.3 IRAKASLEEN KONPETENTZIA-PROFILEN PRESTAKUNTZA ETENGABEA, HEZKIDETZA-EREDUEN ARABERA

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.1 Haurtzarotik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Genero-desberdintasunean oinarritutako gizarteratzea: generoari loturiko ahalmenak, gaitasunak eta bizitza-proiektuak. - Emakumeen presentzia eskasa ekonomia, kultura eta zientziaren arloko erabaki guzietan. - Etzeko lanen eta zaintza-lanen banaketan orekarik eza.
Helburu zehatzak	Koedukazioa dela eta, irakasleen lan-gaitasunak hobetzea, eskuratutako ezagutza ikasgeletan garatzen duten jardueran erabil dezaten, horrela ikastetxean inpaktua sortzeko, eta ondorioz, lan arlo guztietan estereotipo sexistak desagerrarazteko.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Koedukazioari buruzko prestakuntza-jarduerak ematen esperientzia duten erakundeek proposamenak baloratu eta hautatzeko urteko deialdia onartzea. - Koedukazioaren arloan onartutako prestakuntza-ikastaroen eskaintza ikastetxeetan eta irakasleen artean zabaltzea. - Berritzeguneetako erreferentziako aholkularitzek ikastetxeetan esku-hartzea, gai horren inguruko aholkuak emateko. - Koedukazioaren arloko jardunbide egokiak trukatzeko, zonen arabera mintegiak antolatzea. - Egindako prestakuntza-jardueren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
Arduraduna	Hezkuntza Saila. Arduradun nagusia: Hezkuntzako sailburua. Cristina Uriarte Toledo. Arduradun zuzena: Hezkuntzako sailburuordea. Miren Maite Alonso Arana.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Funts publikoekin sustatutako ikastetxeak. Berritzeguneak Erakundeak
Baliabide ekonomikoak (€) 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak	2019: 50.000 euro / 2020: 50.000 €
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	Aipatu jardura guztiak 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetan egitea.
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Hezkidetzaren arloan eskainitako ikastaroen kopurua. - Prestatutako irakasleen kopurua, sexuaren arabera bereizita. - Emandako mintegien balorazio maila. - Jasotako ikastaroen balorazio maila. - Ikastetxeetako koedukazio-proiektuei dagokienez, aholkularitzek egindako jarraipenen kopurua.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.1.4. EMAKUMEENGAN BOKAZIO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAK SUSTATZEN LAGUNTZEKO MATERIALA LANDU LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.1 Haurtzarotik berdintasunean oinarritutako hezkuntza sustatzea
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	- Genero-desberdintasunean oinarritutako gizarteratzea: generoari loturiko ahalmenak, gaitasunak eta bizitza-proiektuak. - Emakumeen presentzia eskasa arlo zientifiko eta teknologikoetan.
Helburu zehatzak	- Zenbait emakumek zientzia alorrean egindako jarduna ezagutaraztea didaktikoki, bere garaian horien ekarpena aitortua izan ez baita. - Ikusgarritasuna eskaintzea emakume langileek zientzia eta teknologiaren alorrean garatzen duten jarduerari erreferenteak sortuz.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Haur eta lehen hezkuntzako ikasleen artean emakume zientzialari ezezagunei buruzko material dibulgatzailea zabaltzea, emakumeok lortutakoa emakumeak izateagatik ez baita ezaguna, eta aleak bidaltzea Berritzeguneetara, lehen hezkuntzako ikasleen artean zabaltzeko. - EAEko zientzia eta teknologiaren alorreko emakume langileen lekukotzei buruzko bideo bat eguneratu eta zabaltzea, ikasketak eta lanbidea aukeratzen laguntzeko (<i>"Emakumeak Zientzian"</i> bideotik abiatuta). - Emakume langile erreferenteak aukeratzea. - Gidoia lantzea, bideoa grabatzea eta editatzea. - Bideoa Berritzeguneetara igortzera, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan zabaltzeko.
Arduraduna	Hezkuntza Saila. Arduradun nagusia: Hezkuntzako sailburua. Cristina Uriarte Toledo. Arduradun zuzena: Hezkuntzako sailburuordea. Miren Maite Alonso Arana.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Zentro teknologikoak eta Unibertsitateak.
Baliabide ekonomikoak(€)	2019: 20.000 € 2020: 20.000 €
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019. urtea 2020. urtea
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetara egindako bidalketa kopurua. - Bideoaren eguneratzea - Bigarren hezkuntzako ikastetxeetara egindako bideo bidalketen kopurua.

3.2.1 EMAKUNDEK EGINDAKO SOLDATA-ARRAKALARI BURUZKO TXOSTENA EGUNERATZEA

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Guztiak Zioei buruz gehiago jakin nahi da, dagozkion jarduketak planteatu ahal izateko.
Helburu zehatzak	- Soldata-arrakala kentzen laguntzea, horri buruzko txostena aldian-aldian eguneratuz. - Zioei buruz gehiago jakitea, dagozkion jarduketak planteatu ahal izateko.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Soldata-arrakalari buruzko txostena egitea, arazoen azterketan sakontzeko eta jarduketak proposatzeko datuak izateko.
Arduraduna	Lehendakaritza / Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea. Zuzendari nagusia: Miren Izaskun Landaia Larizgoitia.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019: 35.000 euro / 2020: 35.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	Lehen datuak 2018. urtearen amaieran eskuratuko dira. Hurrengoak 2020. urtearen amaieran
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	Txostena egitea
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.2.2 IKERKETA SEKTORIALAK EGITEA, SOLDATA-ARRAKALAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREEI BURUZ

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Guztiak Zioei buruz gehiago jakin nahi da, dagozkion jarduketak planteatu ahal izateko.
Helburu zehatzak	Soldata-arrakalan eragina duten faktore desberdinak hobeto ezagutzen laguntzen duten ikerketa sektorialak egitea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Batetik, soldata-arrakala, eta bestetik, hainbat sektore hartzen dituen arazo estruktural horretan eragina duten faktore guztiak hobeto ulertzen lagun dezaketen ikerketak burutzea. Neurri efizienteagoak planteatzea lortu nahi dira horrekin. - Soldata-arrakalan modu zuzenean eta zeharka eragina duten faktoreen ezagupenean sakontzea.
Arduraduna	Lehendakaritza / Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea. Zuzendari nagusia: Miren Izaskun Landaia Larizgoitia.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019:40.000 euro / 2020:40.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019ko abendua. 2020ko abendua.
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Azterketen eragina. - Ikerketa hedatzea - Ikerketak hedabideetan izandako eraginaren jarraipena.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.2.3 DIAGNOSTIKOA: SOLDATA-ARRAKALA EUSKO JAURLARITZAN

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Gobernuaren jarduera-esparru nagusietan antzematen den lanbide arteko segregazioa.
Helburu zehatzak	Eusko Jaurlaritzaren jardun-esparru handi bakoitzean (administrazio orokorra, hezkuntza, osasuna eta segurtasuna) nabaritzen den lan-bereizketaren ondorioz sortzen den soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Informazioa biltzea eta egoeraren diagnostikoa egitea: - Dagozkion organoen datuak biltzea, segimendurako taula osatzeko. ✓ 5.1.a) punturako ezarritako berariazko helburuaren datan antzemandako egoerari buruzko informazioa modu objektiboan azaltzea. ✓ Informazioa lanbide taldeen arabera (berariazko osagarriaren mailak) eta sektorea / jarduera arloaren arabera banatzea (Administrazio Orokorra, hezkuntza, osasuna eta segurtasuna). - Soldata-arrakala % 10etik gorakoa den esparru guztietan ekintza-plan bat ezartzea.
Arduraduna	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Arduradun nagusia: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua. Josu Erkoreka Gervasio. Arduradun zuzena: Funtzio Publikoko sailburuordea. Andrés Zearreta Otazua.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Osasun Administrazio Sailburuordetza Hezkuntza Administrazio eta Zerbitzuetako Sailburuordetza Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza.
Baliabide ekonomikoak (€)	Informazioa biltzea eta egoeraren diagnostikoa egitea: 4.650 € Ekintza-plan bat ezartzea, soldata-arrakala % 10etik gorakoa den esparru guztietan. 10.850 € urteko Aurrekontua guztira 2019-2020: gutxi gorabehera 25.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	- Informazioaren bilketa eta diagnostikoa: 2018-2019 - Ekintza-plana: 2019ko urria
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Diagnostikoa helburuko datan prest egotea - Helburutzat ezarritako data arte egindako plana - Soldata-arrakalaren ehunekoa
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Premia handiena egoeraren diagnostikoa edukitzea eta ekintza-plan bat diseinatzea da, soldata-arrakala gordina % 10 baino handiagoa denean, edo orduko soldata-arrakala % 5 baino handiagoa denean. Ratio horiek (% 24,3 eta % 12,8, hurrenez hurren) EAEko batezbestekoaren azpitik daudela argi badago ere, biek erakusten dute hobetzeko tarte dagoela.

3.2.4. AZTERLANA: SOLDATA-ARRAKALA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREAN (ZTBES)

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Segregazio bertikala. ▪ Zuzeneko soldata-diskriminazioa.
Helburu zehatzak	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 50 langiletik gorako zentro teknologikoetan dagoen soldata-arrakalari buruzko informazioa biltzea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen kide diren eta 50 langiletik gora duten ikerketa zentroentzat, honako informazio hau osatzea: ▪ Kontratutako gizonen kopurua ▪ Kontratutako emakumeen kopurua ▪ Soldata-arrakala termino absolutuetan ▪ Soldata-arrakala orduko
Arduraduna	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Arduradun nagusia: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegiturako sailburua Arantza Tapia Otaegi. Arduradun zuzena: Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea. Estíbaliz Hernáez Laviña.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	ZTBESko eragileak
Baliabide ekonomikoak (€)	Baliabide propioak
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019. urtea
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Kontratutako gizonen kopurua ▪ Kontratutako emakumeen kopurua ▪ Soldata-arrakala termino absolutuetan ▪ Soldata-arrakala orduko
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.2.5 DIAGNOSTIKOA: SOLDATA-ARRAKALA EAE-KO ERAKUNDE, ORGANISMO AUTONOMO ETA ENPRESA PUBLIKO NAGUSIETAN

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	▪ Lanbide arteko segregazioa EAEko erakunde, organismo autonomo eta enpresa publiko nagusietan.
Helburu zehatzak	EAEko Administrazio Orokorraren mendeko erakunde publikoetan, autonomoetan eta enpresa publikoetan, 50 langiletik gorakoetan, nabaritzen den lan-bereizketaren ondorioz Eusko Jaurlaritzan sortzen den soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	▪ Diagnostikoaren xede diren erakunde autonomoak, erakunde publikoak eta sozietate publikoak identifikatzeko. ▪ Informazioa biltzea eta egoeraren diagnostikoa egitea: ✓ Dagozkion organoen datuak biltzea, segimendurako taula osatzeko. ✓ 5.1.b) punturako ezarritako berariazko helburuaren datan antzemandako egoerari buruzko informazioa modu objektiboan azaltzea. ✓ Informazioa lanbide taldearen arabera (lanbide mailak) eta erakunde motaren arabera sailkatzea (erakunde autonomoa, publikoa, sozietatea, fundazioa). ▪ Soldata-arrakala % 10etik gorakoa den esparru guztietan ekintza-plan bat ezartzea.
Arduraduna	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila. Arduradun nagusia: Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua. Josu Erkoreka Gervasio. Arduradun zuzena: Funtzio Publikoko sailburuordea. Andrés Zearreta Otazua.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Eusko Jaurlaritzako sailburuordetzak, eta haien menpe dauden eta diagnostikoaren xede diren erakunde publiko, erakunde autonomo eta sozietate publikoak.
Baliabide ekonomikoak (€)	Informazioa biltzea eta egoeraren diagnostikoa egitea: 4.650 € Ekintza-plan bat ezartzea, soldata-arrakala % 10etik gorakoa den esparru guztietan. 10.850 € Aurrekontua guztira 2019-2020: gutxi gorabehera 25.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	▪ Erakundeak identifikatzea: 2018ko urria ▪ Informazioaren bilketa eta diagnostikoa: 2018-2019 ▪ Ekintza-planak: 2019ko abendua
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	▪ Identifikatutako erakunde kopurua ▪ Ezarritako datarako diagnostikoa egin duten erakunde kopurua ▪ Antzemandako kasuen kopurua ▪ Egindako planen ehunekoa, antzemandako kasuen kopuruarekiko
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Premia handiena egoeraren diagnostikoa edukitzea eta ekintza-plan bat diseinatzea da, soldata-arrakala gordina % 10 baino handiagoa denean, edo orduko soldata-arrakala % 5 baino handiagoa denean.

3.2.6 AZTERLAN BAT EGITEA, "LAN BEREKO LANA" KONTZEPTUA MUGATUKO DUENA, ORDAINSARI-BERDINTASUNAREN PRINTZIOA BERMATZEKO

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Badu eragina soldata-bereizkerian, ez baitago argi zer kontzeptu eta lanpostu-ezaugarri jotzen diren "balio bereko lantzat".
Helburu zehatzak	Zuzeneko diskriminazioa soldata-arrakala murriztea
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	"Balio bereko lanaren" kontzeptua zehazteko irizpideak ezarriko dituen azterlan bat egitea, "balio bereko lanagatik lansari berdina" printzipioa benetan aplikatzea bermatzeko; horrek esan nahi du ordainsariari loturiko elementu eta baldintza guztietan ezabatu egingo direla sexu-diskriminazio guztiak, lan berdina egiten denean edo balio bera atxikitzen zaion lana egiten denean.
Arduraduna	Lan eta Justizia Saila. Arduradun nagusia: Lan eta Justiziako sailburua. María Jesús Carmen San José López. Arduradun zuzena: Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea. Jon Azkue Manterola.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Emakunde Eragile ekonomikoak eta sozialak
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019: 15.000 euro / 2020: 15.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2019. urtea 2020. urtea
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	Azterlana eginda.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.2.7 PLAN BAT DISEINATZEA, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEN EUSKAL ESTRATEGIAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.2 Ikerketarako dinamika bat txertatzea, arazoa monitorizatzen uzteko eta Euskadiko soldata-arrakalan eragina duten faktoreen bilakaerari segimendua egiteko
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Zeharkako lan-diskriminazioa.
Helburu zehatzak	Langileen laneko segurtasun eta osasunari heltzeko modua hobetzea, genero-ikuspegia apurka-apurka txertatuz.
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	Laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeak soldata-bereizkerian eragin zuzenik ez badu ere, lan-arriskuen prebentzioa genero-ikuspegitik sustatzeak lan-ingurune seguru, osasungarri eta jasangarriak sortzea ekar dezake, eta horiek ezinbesteko baldintzak dira norberaren alderdi pertsonal eta profesionala berdintasunean garatzeko. 2018an, plana hainbat ardatzekin diseinatu da, eta horietako bakoitzari ekintza zehatzak dagozkie: 1. Lan-arriskuen prebentzioan oinarritutako kultura sustatzea, jokabide seguruak eta lan-ingurune osasungarriak bultzatzeko, genero-ikuspegia aintzat hartuta. 2. Laneko segurtasun eta osasunari buruzko ezagutza genero-ikuspegia aintzat hartuta sortu eta hedatzea. 3. Lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketan apurka-apurka genero-ikuspegia txertatzea. 4. Gobernu ona
Arduraduna	Lan eta Justizia Saila. Arduradun nagusia: Lan eta Justiziako sailburua. María Jesús Carmen San José López. Arduradun zuzena: Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea. Jon Azkue Manterola. OSALAN
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Enpresak Sindikatuak
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019, 2020: ez dago eskuragarri (zenbatekoak esleituko dira aurreikusitako ekintzak abian jartzeko)
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	2018ko azken hiruhilekoa: 2018-2021 aldirako plana amaitzea 2019, 2020 eta 2021: ekintzak hedatzea.
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Plana egitea - Urtean burututako jardueren kopurua / programatutako jardueren kopurua
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	Gainera, jarraituko dira Laneko Osasunaren EAEko estrategian (2015-2020) aurreikusitako ekintzak garatzen.

3.3.1 EBALUAZIOA, BENETAKO INPAKTUA ZEHAZTEKO, SOLDATA-ARRAKALAREN MURRIZKETAN GERTATUTAKO AURREPENARI DAGOKIONEZ

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.3 Ebaluatzea jarraibideen garapenean zer aurrerapena gertatu den eta abian jarritako neurri bakoitzak zer nolako inpaktua lortu duen.
Horri loturiko faktoreak, soldata-arrakala eragiten dutenak	Guztiak.
Helburu zehatzak	Planaren bidez martxan jarritako neurrien aurrerapena eta inpaktua ezagutzea, behar bezalako egokitzapenak eskatzeko
Abian jartzeko behar diren jardueren deskribapena	- Hasierako abiapuntu-diagnostikoa - Adierazleak ezartzea - Ebaluazio kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko zerbitzua kontratatzea - Emitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak
Arduraduna	Lehendakaritza Lehendakaritzako Idazkari nagusia: Jesús Peña Martínez.
Parte-hartzea / Beste alderdi batzuen eta eragile laguntzaileen zeregina	Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea Inplikaturako sailak
Baliabide ekonomikoak (€) (2019-2020)	2019: 19.000 euro: ebaluazio-sistema diseinatzea. 2020: 45.000 euro
Egutegia (epea/une garrantzitsuak)	Urteko ebaluazioa egitea eta emaitzak jendaurrean jartzea (2020)
Segimendu eta ebaluaziorako adierazleak	- Ekintza-planari buruzko urteko txostenak (onartu eta ondorengo urte bakoitzean). - Indarraldia amaitu ondoren, plan estrategikoaren amaierako txostena.
Kontuan hartu beharreko alde osagarriak	

3.4.1 SENTSIBILIZAZIO-KANPAINA ETA PRESTAKUNTZA, KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEAZ ETA ZAIN-TZA-LANEN GARRANTZIAZ

Kokapena estrategian	3.A. GIZARTEA HEZTEA ETA SENTSIBILIZATZEA J3.4 Gizarteari jakinaraztea soldata-arrakala murrizteak zer balio dakarren gure herriarentzat
